



**ETXEAN ZAUDE**



*Betetzen al du  
EITB komunikazio  
taldeak bere zeregin  
informatiboa  
zerbitzu publiko  
moduan*

*Emakumeek eta gizonek EITBko albistegietan dituzten protagonismo eta errepresentazioari buruzko azterlana*



**iparhegoa**

IKASKETA  
SINDIKALETARAKO  
FUNDAZIOA



## **AURKEZPENA**

### **1. AZTIKERen IKERKETA:**

### **2. ZATIA: EMAKUMEEK ETA GIZONEK EITBko ALBISTEGIETAN DITUZTEN PROTAGONISMO ETA ERREPRESENTAZIOARI BURUZKO AZTERLANA**

#### **1.1. SARRERA**

#### **1.2. IKERKETAREN MARKO TEORIKOA**

#### **1.3. METODOZKO OHARRAK:**

- Xehetasun teknikoak (laburpena)
- Erabilitako teknika
- Laginketa
- Behaketa fitxa

#### **1.4. IKERKETAREN LABURPENA**

### **2. LAB SINDIKATUAREN KONKLUSIOAK**



## AURKEZPENA

IPAR HEGOA FUNDAZIOAN, AZTIKER ikerketa soziologikoen zentroak egindako azterlanarekin, berria ez den eta hedabide publikoen rolaekin zerikusia duen kezka sozial bat jorratu nahi izan dugu, alegia, EITB taldeak hedabide publiko gisa betetzen duen rola aztertu nahi izan dugu. Azterlanak galdera bati erantzun nahi dio, hau da, argitu nahi du ea EITB taldeak betetzen ote duen, alor informatiboan, zerbitzu publiko bati exijitu behar zaiona: kalitateko zerbitzu informatibo eskaintzea hedabidea sortu duen gizarteari, gogoan izanik, gainera, zergapekoen diruaz ordaintzen dela.

Azterlanaren aurkezpen orokorrean azaldu genuen moduan, galderari hiru faktoreen inguruan erantzun nahi izan diogu. Orain dela aste batzuk, azterlanaren lehen zatiak lehenengo faktorearen inguruan ematen dituen ondorioak argitaratu genituen: **lurraldetasunaren, identitate nazionalen eta subjektu politikoaren protagonismoaren** tratamendua euskal komunikazio talde publikoaren albistegietan. Gogora ditzagun lehenengo zati horren bost ondorioak.


- 1.- "EZ-informazioaren" aldeko apustua.
- 2.- Euskal Herria ez da existitzen. Esparru autonomikoaren erreferentzia indartu egiten da gainean dagoen errealitate sozial eta politiko baten zati gisa: espainiar Estatuaren zati gisa.
- 3.- Albistegiak alderdikieriaz erabiltzen dira, eta ezker abertzaleari buruzko informazioak iragazitik pasatzen dira.
- 4.- Komunikazio ereduak baztertzeko dituzte bai bere errealitate propioa eta bai bere jardunaren hartzaila den gizartea.
- 5.- Komunikazio eredu honen kudeaketak tentsioak sortzen dituzte hedabideetako plantillak osatzen dituzten profesionalengan.

Argitalpen hau, AZTIKERen azterlanaren lehenengo zatiarekin batera, eskuragarri dago LAB sindikatuaren Webgunean.

Orain, azterlanaren bigarren zatia aurkezten dugu: **emakumeek eta gizonek EITBko albistegietan dituzten protagonismo eta errepresentazioari** buruzkoa, hau da, aztergai du zein rol jokatzeko duen EITBk emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko apustuan, zernolako balioak transmititzen diren informazioaren testuinguruan, zer estereotipo azpimarratzen diren, norainoko protagonismoa duten emakumeek eta gizonek albisteetan...

Lehenengo zatian bezala, azterlanaren egiterakoan kontuan hartu dira ETB1, ETB2, Euskadi Irratia eta Radio Euskadiren eguneroko albistegiak, 2010eko irailetik abendura bitartean. AZTIKERek aplikatu eta azterlanean bertan zehaztasunez azaltzen den metodologiaren arabera, **kate guztietako 28 albistegi aztertu dira**, asteko egun guztietakoak; guztira, **1065 albiste aztertu dira**.

Betetzen al du EITB komunikazio taldeak bere zeregin informatiboa zerbitzu publiko moduan



Europar egindako ikerketa ugari erakusten dutenez, emakumeak mendeko rolean mantentzen laguntzen duten faktoreak hiru dira bereziki: estereotipoen iraupena, emakumeen eta gizonen tratamenduan dagoen asimetria, eta hizkera sexista edo ezkutatzailea<sup>1</sup>.

Lkuspuntu horretatik begiratuta, garbi dago hedabideek garrantzi handia dutela emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko lanean, zeren ahalmen handia baitute ereduak eratzeko, jarrerak aldatzeko, mitoak betikotzeko, mezuak hedatzeko, balioak finkatzeko eta irudiak eraikitzeko.

Ikerketak modu espezifikoan aztertu du indarkeria sexistak albistegietan duen tratamendua.

Aurkezten dugun azterlanaren emaitzei dagokienez –ondorioen atalean garatzen diren emaitzei dagokienez-, aurkezpen honetatik bertatik aurrera daiteke kezkarritzat jo behar direla nahitaez. EITB taldearen albistegiak oso urrun daude emakumeek azken urteotan izandako eraldaketa sozialen parean egotetik; halaber, errealitateari buruz transmititzen duten errepresentazioak indartzen jarraitzen du gizonen bizitza politikoan, ekonomikoan eta kirolaren arloan duten protagonismoa, emakumeen ikusezintasunaren eta haien errepresentazio estereotipatuaren bitartez; era horretan, oraingo sistema soziala indartzen dute eta berdintasunaren aldeko aldaketak balaztatu.

Egungo arduradun politikoek horrenbeste iragarri duten aldaketa, identitateari dagokionez, Estatu espainolaren presentzia handiagoan eta soka bereko politikariei emandako protagonismoan ikusten da, baina trataera informatibo ez diskriminatzailea eta emakume eta gizonen parekidetasunaren alde konprometitutako zerbitzu publiko izaerari dagokionez, aldaketa hutsaren hurrena da.

Horrenbestez, azterlanaren emaitzek adierazpen-askatasun kontzeptua bera kuestionatzera eramaten gaituzte, biztanleriaren erdia kanpo utziz erabiltzen den neurrian.

Azterlanaren eduki osoa eta oinarritzat hartu duen metodologiaren azalpena eragile sozial eta politiko guztien eskuetan jartzen dira, zeren ikusgai egongo baitira gure Webgunean.

IPAR HEGOA FUNDAZIOA

---

<sup>1</sup> Kivikuru, Ullamaija. "Imagen de las mujeres en los medios de comunicación" in Women of Europe n° 52, 1988.

[a]  
aztiker  
Jendarte-ikerketa aplikatuak



**EITBko ALBISTEGIEN AZTERKETA  
GENEROEN AGERPEN ETA  
ERREPRESENTAZIOA**

Bezeroak:

iparhegoa  
IKERKETA  
SABARRI  
FUNDAZIOA

*baietz!*  
FUNDAZIOA





# 1. - AZTIKERen IKERKETA

## 2. ZATIA: EMAKUMEEK ETA GIZONEK EITBko ALBISTEGIETAN DITUZTEN PROTAGONISMO ETA ERREPRESENTAZIOARI BURUZKO AZTERLANA

### 1.1. SARRERA

Txosten honetan EITBko lau hedabideetako albistegien azterketaren datuak aurkezten dira, hain zuzen ere, ETB-1, ETB-2, Euskadi Irratia eta Radio Euskadiko albistegietako datuak. Aipatu azterketa 2010eko iraila eta azaroa bitartean egin da.

Ikerketaren helburuari dagokionez, honakoa aztertzea izan da: emakume eta gizonezkoen errepresentazioa zein den eta nola aurkezten zaigun aipatu albistegietan.

Txostenaren edukizko antolaketari erreparatuz gero, lehen atalean, ikerketaren **ohar metodologikoak** dituzu. Bertan, urratsez urrats, sortutako eduki azterketarako fitxa, kronograma, birkodetzeen azalpena, e.a. aurkezten dizugu.

Bigarren atalean, albistegien **antolaketaren** inguruko informazioa aurkituko duzu: albisteen ordena, agerpena eta denborak neurtuta. Datu hauek egindako generoaren azterketarekin harremana izango dute aurrerago gurutzatuak agertzen diren aldagai gisa.

Hirugarren atalean, albistegien **tematika aztertu dugu**. Hau da, zer-nolako gaiak lantzen diren eta emakumezkoaren papera hauetan zein neurritan lantzen den.

Laugarren atalean, **genero azterketaren** atalari dagokionean, generoaren ordezkartzarekin harreman zuzena duten aspektu desberdinak landu ditugu. Ikergaiaren aspektu nagusietako bat izanik, ikerketaren atalik zabalena da.

Atal honetan hiru ikerketa-arlo desberdinen arabera egin dugu ikerketa:


1. *Subjektuak*. Beste modu batean esanda, EITBko hedabideetan ikusten eta entzuten ditugun pertsonaien generoaren araberrako banaketa. Modu honetan EITBk ahotsa zein subjektuei eskaintzen dion erantzun nahi izan zaio.

2. *Hizkera*. Estereotipo eta hizkera sexista behatu dugu.

3. *Azterketa ikonikoa*. Emakume eta gizonezkoak zein rolei erantzuten dieten aztertu dugu.

Bosgarren atalean, **indarkeria sexistaren** inguruko lanketaren azterketa burutu dugu, honetarako propio garaturiko aldagaiekin. Atal honen arazoaren difusio sozialari eragiten dizkieten elementu desberdinak baloratu dira, hala nola problematika honen izendapena edota garrantziaren tamaina islatuko dizkiguten bestelako elementu baloratibo diskurtsiboak.

Betetzen al du  
EITB komunikazio  
taldeak  
bere zeregin  
informatiboa  
zerbitzu publiko  
moduan



## 1.2. IKERKETAREN MARKO TEORIKOA

Ukaezina da masa komunikabideek duten potentziala eta eragina jendartearen sozializazio agente gisa nahiz iritzi eta balio sortzaile gisa.

Albistegi bat osatzen duten elementu guztien atzean hautaketa prozesu bat dago, batzuetan inkontzientea, kontzientea beste askotan. Hautatuak diren gertakari, terminologia, esparru, irudi eta pertsonaiak **pentsaera kolektiboaren definiziorako** bitartekoak dira. Gauzak horrela, eta gure iker-arloari jarraiki, egun hegemonikoa den genero errepresentazioa sortu eta birsortzeko bitartekoak ere gizarteratzen dira komunikabideen bidez.

Genero kontzeptuak, gizon eta emakumeen artean sozialki eraikitako desberdintasunak zehazten ditu.

Sexuen araberako identitateen bereizketa egin dugu baina sexuen adiera hegemonikoei erreparatuta, Gizonezko eta Emakumezko kategoriak baino ez baititugu behatu.

Baina sexuaren gaineko interpretazio hutsetik harago, genero identitateen errepresentazioa izan da estereotipoak aztertzerakoan kontutan hartu dugun faktorea.

Erreproduktzio informatiboan, generoen artean antzematen den ordezkari asimetrikoa (emakumearen presentzia debaluatuta), EITBn zein neurritan eskaintzen zaigun neurtu dugu, izan ere, faktore honek distortsio ideologiko handia sortzen du.

Genero kontzeptua, beraz, gizon eta emakumeen jarrera eta sentimenduen eraikuntza sozial gisa ulertuta, sorkuntza edota birsorkuntza horretan komunikabideek jokatzeko duten papera tamaina bizikoa suertatzen da, identitatea eraikitzen doan elementua baita.

Ikerketa honetan generoen araberako ordezkari orokorrean, eta zehazki, generoek boterearekin edota eremu publikoarekin dituzten harremanak aztertu ditugu.

Bi dira ikerketaren eremu nagusiak; generoen agerpen eta ordezkari maila, batetik; eta, bestetik, genero bakoitzaz eskaintzen zaizkigun irudi eta estereotipoak. Hau da, egungo sistema patriarkalak indartzen duen genero hierarkia zein modutan irudikatzen den hedabide publikoan aztertu dugu.

Esku artean duzun ikerketa, generoen arteko harremana aztertzeko egin da, ez baitugu genero bakar baten inguruko analisi hutsa burutu. Hala ere, emakumezkoaren bereizkeriaren errealitateak abiatuta garatu dugu ikerketa.

Generoa, informazio unitate orotan presente dagoen elementua izanik, modu desberdinetan aurkezten da publikoaren begi belarrietan. Modu agerikoan edo inkontzientean albiste bakoitzak indar harreman bati edo besteari erantzuten dio, eta abiapuntu informatiboa den genero diskriminaziotik planteatuta dago edukiak aztertzeko prestatutako Erregistro Fitxa.


Bestalde, eta helburu orokor gisa emakume eta gizonezkoen presentzia eta papera eremu publiko eta pribatuaren arabera baloratu da. Egungo balore sistemaren arabera, eremu prib-

atua, arlo emozionalarekin lotutakoa izango litzateke batetik, eta bestetik, eremu publikoa, jendarterako garrantzitsu eta estrategikotzat deritzon aferak lantzen dituen. Mailaketa honi jarraiki, albisteen banaketa berbera topa dezakegu albiste "gogor" (Politika, Ekonomia) eta "bigunen" (Jendartea, Kultura) arteko bereizketarekin.

EITBko lau hedabidetako azterketa burutu denez, bi hizkuntzatan egin zitekeen azterketa. Hala ere, euskararen zama sexista gaztelarekin alderatuta nabarmen baxuagoa da<sup>2</sup>. Egia da euskarak genero gramatikalik ez badu ere, beste modu batzuetan agertzen dela genero bereizketa, baina aurkezten den ikerketa honetan hizkerari dagokion atalean adiera gramatikalaren inguruko behaketarik ez da egin.

Orain arte esandakoa laburbiltzeko asmoz, eta marko teorikoaren atal honetan adierazitako mugarren baitan, ikerketa honen abiapuntuan eta xedean dago jakitea zein den EITBk bere albistegien bidez sustatzen duen genero errepresentazio soziala.

Betetzen al du  
EITB komunikazio  
taldeak  
bere zeregin  
informatiboa  
zerbitzu publiko  
moduan



### 1.3. METODOZKO OHARRAK

- XEHETASUN TEKNIKOAK (LABURPENA).

**Unibertsoa:** EITBko lau hedabideen albistegiak

**Lagina:**

ETB-1, ETB-2, Euskadi Irratia eta Radio Euskadiko 28 albistegi saio.

Hedabide bakoitzeko eta astegun bakoitzeko bana.

Guztira, behatutako albiste kopurua 1.065 izan da.

**Landa-lana:** 2010eko irailaren 18tik azaroaren 8 bitartean.

- ERABILITAKO TEKNIKA

Ikerketaren helburu nagusia EITBko albistegien genero trataera zein den jakitea izanik, edukien azterketa izan da erabilitako prozedura. Zehazki, grabatutako albistegietako hitzezko zein irudi bidezko edukien erauzketarako Fitxaren bitartez burutu dugu azterketa, modu honetan EITBko eduki eta diskurtsoen azterketa kuantitatiboa burutuz.

Laginaren unitatea albistegia izan da. Albistegia, aurkezle propioekin telebista zein irratiko gainontzeko programaziotik berezituta eta giza baliabide zein baliabide tekniko propioekin garatutako informaziorako tartea da. Honetarako, telebistako laginean Kiroleko atala kontutan hartu da, ez, ordea, Eguraldia.

---

<sup>2</sup> Álvaro García Meseguerrek egindako ikerketaren datuei erreparatuta, euskararen %5 eta gaztelanian %80ko portzentzian.

Irratiaren kasuan, Kultura, Trafikoa eta Kiroleko atalak aintzat hartu dira, eta Euskadi Irratiaren kasuan, Gertukoak saila ere.

Azterketa unitate gisa albistea erabili dugu. Behaketarako oinarrizko elementua izan da, albisteak izan direlako edukien arabera azterketa egiteko erabilitako informazio unitateak. Informazio unitate hau identifikatzea ezinbestekoa da modu operatibo batean albistegien hitzeko zein irudi bidezko azterketa gauzatzeko.

Albistea, beraz, albistegietako informazio orokorra eskaintzen digun elementu nagusia da. Halere, hizkeraren inguruko informazioa jasotzeko albiste bakoitzaren baitako hitzak aztertu ditugu, honek eskaintzen baitigu diskriminazioari buruzko informazio zehatza kasu bakoitzean.

Albisteak tematikoki zedarritu ditugu, egitura aldetik ere gutxienik aurkezle baten informazio edo sarrera bat eta gertakari edo ekintza bat exijitzen duelarik. Emaitzak ere unitate honen azterketaren arabera aurkezten ditugu.

Kodifikazioaren bitartez albiste bakoitzaren azterketak emandako datu gordinak sailkatu ditugu.

Sailkapen hauek, era berean, eraldatu eta berriro sailkatuak izan dira kategoria berrietan birkodetzeen bitartez.

#### • LAGINKETA

Unibertsoa EITB kate publikoko eguneroko albistegiak dira, ETB-1, ETB-2, Euskadi Irratia eta Radio Euskadikoak, alegia.

Lagina unibertso osoaren argazki ordezkagarriena izan dadin, hedabide bakoitzean asteko egun guztiak bilduko dituen kronograma osatu dugu.

Astegun guztietako hedabide guztietako albistegi bana aukeratzeko kronograma burutu dugu, beraz.

Hedabide bakoitzeko albisteen artean gutxieneko 7 egunetako tartea utzi dugu, bata eta bestearen artean, berri zehatz batek eduki zezakeen "kutsadura" ondorengo egunetako albistegietan ekiditearren.

Ikerketaren azterketarako oinarrizko unitateak izan diren 1066 albiste behatu ditugu orotara.

Hedabideka, modu honetan banatu dira albiste hauek:

- ETB1- 209 albiste.
- ETB2- 270 albiste.
- Euskadi Irratia- 329 albiste.
- Radio Euskadi- 258 albiste.

Telebistaren kasuan, gaueko albistegiak izan dira aztertuak: ETB1en gaueko 20.00tan hasita, eta ETB2ren kasuan, gaueko 21.00tan hasita.

Irratiari dagokionez, eguerdiko albistegiak landu dira: Euskadi Irratiaren kasuan, 13.00etatik 14.30 bitartean emititzen dena, eta Radio Euskadin 13.00etatik 15.00 bitartekoa.

Orotara, 95.644 segundotako tartea jorratu izan dira, denborak honela banatzen direlarik lau hedabideen artean:

- ETB1- 13.969 segundo/232,8 minutu/3,9 ordu.
- ETB2- 18.975 segundo/316,3 minutu/5,3 ordu.
- Euskadi Irratia- 29.344 segundo/489,1 minutu/8,2 ordu.
- Radio Euskadi- 33.356 segundo/489,1 minutu/9,3 ordu.

## • BEHAKETA FITXA

Albiste eta albistegi bakoitza erregistratzeko Identifikaziorako atala sortu dugu ere. Modu honetan, albiste bakoitzak biltzen duen informazio guztia albiste kodigo bati egokituko zaio, albiste egun eta hedabide baten baitako informazio gisa.

Sakonean jorratu nahi izan diren aldagaiekin osatu dugu Azterketa Fitxa. Fitxa honek, sarreran aipaturiko lau atal nagusi biltzen ditu:

*Egitura.* Albistegiaren antolaketaren behaketarako atala. Albistegiaren baitako kokapena, informazio tematikoa eta iraupena eskaintzen dizkigu.

*Bloke tematikoa.* Albisteetako gai tematikoak aztertu ditugu, gure ikergaia den generoaren errepresentazioarekin duten harremana neurtzeko xedez.

*Genero esplizitazioak.* Hitzeko zein irudi bidezko informazioa eskaintzen dizkiguten aldagaiek osatzen dute. Hitzeko informazioaz ari garenean, bi informazio mota hartzen dira kontuan: batetik, kazetarien adierazpenak, ahotsaz, hitz eginez entzun ditugunak. Bestetik, teleprinterretan idatziz agertu direnak, hitzekoa baita bertan ageri den informazioa.


*Indarkeria sexista.* Atal berezitu batean aztertu dugu eskaintzen diren indarkeria sexistaren inguruko informazioaren lanketa. Albiste hauei nolako trataera ematen zaien izan da aztertu duguna, elementu desberdinei erreparatuta.

Honetaz gain ere, albiste eta albistegi bakoitza erregistratzeko Identifikaziorako atala sortu dugu. Modu honetan, albiste bakoitzak biltzen duen informazio guztia albiste kodigo bati egokituko zaio, albiste egun eta hedabide baten baitako informazio gisa.

Aldagai bakoitzerako kategoria ezberdinen aurre-kodifikazioa egin da. Modu honetan albiste bakoitzaren behaketan agertzen ziren elementuak datu base batean jaso dira.

Behin datu basea sortu eta ustiatuta, zenbait kategoria birkodetuak izan dira, irakurlearentzat

Betetzen al du  
EITB komunikazio  
taldeak  
bere zeregin  
informatiboa  
zerbitzu publiko  
moduan



aurkezpena ulergarriagoa eta irakurterazagoa izan dadin eta emaitzak esanguratsuak izan daitezzen.

Generoarekin harreman zuzenena duen aspektua izanda, subjektuen sexuen sailkapena hiru kategoriei jarraiki egin dugu. Generoaren inguruko eztabaida sakonean murgildu gabe, emakume eta gizonen azterketa egin dugu.

Hirugarren kategoria bat "Zehaztu gabea" erregistratu dugu, eragileak modu neutro batean agertu diren kasuetarako, edota emakume edo gizonari erreferentzia egiten zaion argi gelditzen ez den kasuetarako.

#### **1.4. IKERKETAREN LABURPENA**

##### **• ALBISTEEN ANTOLAKETA.**

- EITBko albistegietan Kirola da gehien lantzen den gaia, notizia kopuru (%29,7) zein hauei eskaintzen zaien denborari dagokionean (%33,1).

- Bigarren mailan Politika (%20,4) aurkitzen da, eta jarraian Jendartea (%19,7) gaia.

- Politikako albisteak dira lehentasunez ageri direnak albistegietan (%60,7) eta Jendarteko albisteek bigarren postuan sailkatzen dira, datu erlatibo altuarekin (%15,7).

##### **BLOKE TEMATIKOA**

- EITBko albistegietan gehien lantzen den gaia Futbola da albiste guztien %13,5arekin. Jarraian, Artea (%6,3) eta bestelako kultur adierazpenak (%3,4) topatzen ditugu.

- Mugimendu feministari edota ikuspegi feministadun ikuspegiko albisteek %0,3a baino ez dute osatzen.

- Titularretan agertzen diren gaietatik %1,8a baino ez da emakumearen perspektiba lantzen, emakumearen gai propio gisa landuta.

- Albisteei dagokionean, antzeko joera ikus daiteke, datua %3,4ra igotzen bada ere.

- Emakumearen ikuspegia lantzen duten hauetako %63,9a Futbolean jasotzen da, emakumezkoen ligako albisteen eraginez batik bat. Bigarren mailan, Jendarteko atalean jasotzen dira tankera honetako albisteak (%22,2).

## • GENERO AZTERKETAREN LANKETA

- **Subjektuei** dagokionean agertzen diren pertsonaien %75,5a gizezkoa da. Eskaintzen zaien denborari erreparatuta %83,8a eramaten dute.

- Gizezkoak izendatzen diren kasuen %83,0an izena eta eragilea erabilita egiten da. Emakumezkoen kasuan, datua %60,5era jaisten da.

- Pertsoniak izendatzeko harreman familiarrari (status bikarioa) erreferentzia egiten zaion kasuen %95,0an laguntzaile femeninoak erabiltzen dira. Honek emakumezkoari aipamena egiteko gizezkoaren agerpenaren "beharra" adierazten du.

- Albistegietan aditu gisa ageri diren subjektuen %85,7a gizezkoak dira. Esperientzia pertsonalagatik agertzerakoan %74,5a dira gizezkoak eta bozeramaile gisakoak %73,3a.

- Emakumezko pertsonaien %27,4ak funtzio instituzionala betetzen du. %16,5a populazio edo herritarrak dira. Gizezkoek dagokienez, %27,4a kirolaria da eta %16,2a funtzio instituzionala betetzen duena.

- **Hizkeraren** gaineko azterketan, kazetariak erabilitako izendapen generikoen %85,5a generiko maskulinoak direla adierazten digu, neutroa %14,0a izanik. Honek hizkuntza trataeraren desberdintasun agerikoa azaltzen du.

- Gizezkoaren irudia, eremu publikoari %99,1ean lotuta agertzen den bitartean, emakumezkoaren estereotipoak irudi publikoarekin harremanean %50,0an ageri dira. Honekin batera, emakumearen irudi zaintzaile (%20,5) eta sentibera (%13,6) azpimarratzen da.

- Irudietan generoen arteko diskriminazioa sailkatutako (konnotaziorik dauzkatenak) irudien %23,2an ikus daiteke.

- Berdintasuna lantzen duten irudiak %1,5a baino ez dira.

## • INDARKERIA SEXISTA


- Indarkeria sexistako albisteak "biguntzat" sailka daitezke EITBko albistegietan duten kokapenari erreparatuta. Albiste hauen %80,0a Jendarte blokean eskaintzen da, eta beste hainbeste titularretan.

- %80,0a da ere albistegietako bloke nagusian kokatuta dauden albisteak.

- Bestalde, gaia osotasunean landu baino, inpaktua sortzen duten gertakariak suertatzen dira albiste-gai, erregistratuko kasuen %50,0a hilketa sexistak dira.

- Albiste hauetan sentsazionalismo kutsua antzematen da kasuen %50,0an gertakarien deskribapen xehetua eskaintzen zaigulako. Gainera, eraso gertakizuna bera eta jarraipen judiziala baino ez da ageri, erreakzio sozial edota politikoa bilatzen ez delarik albiste mota hauetan.

Betetzen al du  
EITB komunikazio  
taldeak  
bere zeregin  
informatiboa  
zerbitzu publiko  
moduan



- Kontakizunean, bestalde, kasuen erdian nolabaiteko efektu narkotizatzailea antzematen da, larritasunari balio edo garrantzia ezabatzen dizkioten hitzeko elementuen bitartez.
- Kasuen %60,0tan justifikazio adierak eskaintzen dira narrazioan, izan drogak edo bestelako justifikazio ideologikoak.
- Azkenik, eraso sexistetan parte diren subjektuen informazioa eskaintzerako orduan, %70,0a erasotzailearen ingurukoa izaten da, zeina erasoaren testuinguruan jartzeko lagungarri suertatzen den.



## 2. - LAB SINDIKATUAREN ONDORIOAK

Emakumeek eta gizonen EITB taldearen albistegietan dituzten protagonismoa eta errepresentazioari buruz AZTIKERek egin duen azterlanaren emaitzetatik, jarraian garatuko ditugun bost ondorio azpimarratzen ditugu.

Ikusi ahal izango denez, azterlanetik ondorioztatzen diren konklusioen larritasunak hausnarke-ta sakona eragin beharko luke, neurriak berehala hartzea eramateaz batera, kontuan hartuta norainoko garrantzia izan behar duen hedabideen rola berdintasunaren aldeko borrokan; kasu honetan, gainera, haien izaera publikoa ere hartu behar da kontuan.

Konklusioak hauexek dira:

- 1. Emakumeen ikusezintasuna.**
- 2. Emakume eta gizonen errepresentazio estereotipatua.**
- 3. Emakumeen eta gizonen errepresentazio hierarkiko eta diskriminatzailea. Albistegien egituraketa androzentrikoa.**
- 4. Mugimendu feminista ez da existitzen albistegietan, eta urriak dira berdintasunaren inguruko irudiak edo emakumezkoen diskriminazio egoera islatzen dutenak.**
- 5. Emakumeen aurkako indarkeria. Trataera sentsazionalistarekiko joera, berezko indarkeria estruktural bezala tratatu beharrean.**

### 1. Emakumeen ikusezintasuna EITB taldearen albistegietan.


Gizonen albistegietan duten errepresentazioa izugarri handia da: % 75. Emakumeek, berriz, % 16,6ko presentzia baino ez dute. Dena dela, are txarragoak dira denborak albistegietan duen banaketari buruzko datuak; izan ere, gizonen errepresentazio-denbora % 83,8 da eta emakumeena % 16,1.

Emakumeen errealitate espezifikoak jaso eta titularretan azaltzen duten albisteak % 1,8 dira, besterik ez. Baina emakumeen errealitatearen isla gainerako albisteetan ere da urria: % 3,4.

Hizkera da hedabideetako errepresentazio-tresna nagusia. Gertaera jakin bat deskribatzeko erabiltzen diren hitzak, irudiekin batera, errealitatea definitzeko eta gauzak eta gertaerak izendatzeko tresnak dira. Esan dezakegu hizkera botere kontua dela; alde horretatik, errealitatea izendatzeko eta sortzeko ahalmena gizonetzkoiegi egotzi izan zaien eskumen bat da jendarte patriarkaletan.

Horregatik, erderaz maskulinoa modu generikoan erabiltzea lagungarria da emakumearen errealitatea ikusezin bihurtzeko. Horri dagokionez, EITBko albistegietan erabiltzen den hizkera

Betetzen al du EITB komunikazio taldeak bere zeregin informatiboa zerbitzu publiko moduan



maskulinoa da kasuen % 85,5ean, femeninoa kasuen % 0,4an, eta kasuen % 14an soilik da neutroa. Ikerketan azaltzen den moduan, egia da euskaraz, genero gramatikalik izan ez arren, genero desberdintzea beste modu batzuetara burutzen dela, ikerketa honek hizkuntzari eskaintzen dion atalean ez da zentzu gramatikalari buruzko behaketa egin.

Datuak aski garbiak dira, eta, beraz, esan eta salatu daiteke emakumeak ikusezinak direla EITB taldearen albistegietan. Emakumeek bizitza publiko eta sozialaren eremu guztietan duten parte-hartzea % 16tik gorako da, baina hori da euskal komunikazio taldearen albistegietan emakumeei ematen zaien ehuneko.

## **2. Emakumeen eta gizonen errepresentazio estereotipatua.**

Emakumez eta gizonaz hedabideetan egiten den errepresentazio estereotipatua lagungarria da nagusitasun-egiturak betikotzeko, eta, gainera, eredu berriak ikustea eta horietan islatzea eragozten die belaunaldi berriei.

Azterlanaren emaitzetan ikusten denez, emakume eta gizonen presentzia generoaren ordena sozialak pertsona bakoitzari egozten dizkion espazioen arabera egituratzen da oraindik ere EITB taldearen albistegietan.

Hori guztia lanaren banaketa sexualaren zati da, hau da, horren oinarrian dagoen kontsiderazioa da espazio femeninoa etxeko espazioa dela eta espazio maskulinoa espazio publikoa; horrek desberdintasunak sortzen ditu baliabideak eskuratzerakoan eta baliabide horiek sortzen dituzten aukerak aprobeztatzerakoan.

Era horretan, espazio publikotzat hartzen denari lotutako albisteetan, emakumeak albisteen % 28,9an agertzen dira; gizonak, berriz, espazio publikoari lotutako albisteen % 85,7an agertzen dira. Bada hori bezain deigarria den beste datu bat, alegia, emakumeak albisteen % 15,8an agertzen direla lotuta espazio pribatutzat hartzen den espazioari, gizonen kasuan ehuneko hori % 0,5 baino ez den bitartean. Gainera, bada kontraste handia emozioen alorrari eta sentimenduei lotutako albisteei dagokienez ere: emakumeen errepresentazioa % 15,8 da horrelakoetan, eta gizonena % 1,1 soilik.

Gizonak albisteen % 2,5ean agertzen dira irudikatuta zaintzaile bezala, eta emakumeak albisteen % 20,5ean.

Halaber, albisteak aztertzerakoan kontuan hartu da zer neurritan agertzen diren lotuta emakumeak eta gizonak espazio publiko eta pribatuei. Irudien bidez, emakumeak albisteen % 50ean agertzen dira lotuta espazio publikoari eta beste % 50ean espazio pribatuari. Gizonei dagokienez, berriz, albistegietako irudiek espazio publikoari lotuta islatzen dituzte kasuen % 99,1n, eta albisteen % 0,9k soilik erakusten ditu espazio pribatu deritzanari lotuta.

Datu horiek guztiek agerian uzten dute EITBko albistegiek erreproduzitu eta elikatzen dutela espazio publikoaren (maskulinoa) eta pribatuaren (femeninoa) arteko bereizketa sexista eta estereotipatu hori.

### 3. Emakume eta gizonen errepresentazio hierarkiko eta diskriminatzailea. Albistegien egituratze androzentrikoa.

Ikusiko dugunez, politikaren eta ekonomiaren alorreko gaiak, nabarmenki publiko eta lehen-tasunezkoak direnez, gizonentzat daude erreserbatuta; emakumeei, aldiz, kulturaren alorra eta gai sozialak egozten zaizkie. Errepresentazio estereotipatu horrek dakarren ondorioa emakumeen eta gizonen arteko harremanean errepresentazio hierarkikoa da; bertan, gizonen egozten zaizkien espazio eta rolei emakumeei egotzitakoei baino balio handiagoa ematen zaie, edo baliagarriagozat jotzen dira.

Albistegietan, emakumeen errepresentazioaren ehuneko handienak "albiste bigun" deritzanetan aurkitzen ditugu, hau da: Gertukoak sailean %35,7, Kultura sailean % 29,3rekin, eta Gizartea sailean % 25,5ekin. Modu esanguratsuan, gizonen agerraldien rankinga hauxe da: % 91,7 Kiroletan, % 73,8 Politikan eta % 69 Ekonomian.

Azterlanaren lehenengo zatian azaldu genuenez, orokorrean ikusten da denbora gehien dedikatzen zaion alor informatiboa kirola dela, albiste guztien %29,7rekin eta denbora osoaren % 33,1rekin. Kirolak hartzen duen denbora Politikak eta Ekonomiak –biek batera- hartzen dutenaren adinakoa da. Bada, gai horretan gertatzen da batzuek sexismo informatiboaren adierazle gorentzat hartzen dutena, eta hor da beste inon baino agerikoagoa gizonen okupatzen duten espazioaren eta hedabideek emakumeei ematen dieten espazioaren arteko asimetria. Hala, kontuan hartuta Kirola dela albistegietan albiste eta denbora gehien okupatzen dituen espazioa, ikus dezakegu % 91,7 gizonen protagonismoari dagokiola eta % 7,4 emakumeen protagonismoari. Horrek erakusten du, modu garbian, albistegietako egituraketa bera androzentrikoa eta diskriminatzailea dela.


Gainera, errepresentazio hierarkikoa emakumeak eta gizonak aurkezteko edo identifikatzeko forman ere antzematen da, eta baita egozten zaien rolen bidez ere –zer roletan erakusten dituzten-.

Ikuspegi horretatik begiratuta, albisteen % 83an gizonak pertsonalki agertzen dira identifikatuta (izena eta abizenak), ordezkaten duten erakundearen identifikazioarekin batera; emakumeen kasuan, berriz, identifikazio forma hori kasuen % 60,5ean gertatzen da. Beste alde batetik, kasuen % 22,3an emakumeak errepresentatzen dira ordezkaten duten erakundea identifikatzearen bidez; gizonen dagokienez, berriz, hori kasuen % 7,2an gertatzen da.

Albistegietan agertzen direnean, gizonak aditu bezala aurkezten dira kasuen % 85,7an, beren esperientziagatik kasuen % 74,5ean, eta eledun gisa kasuen % 73,3an. Emakumeei dagokienez, ehuneko altuenak hauexek dira: kasuen % 50ean lekuko bezala agertzen dira, eta kasuen % 44,4an iritzia ematen duen pertsona bezala (bi kasuetan, "Vox populi" izenez ezagutzen dena).

### 4. Mugimendu feminista ez da agertzen albistegietan, eta urriak dira berdintasunaren inguruko irudiak edo emakumezkoen diskriminazio egoera islatzen dutenak.

Betetzen al du EITB komunikazio taldeak bere zeregin informatiboa zerbitzu publiko moduan



Emakumeen eta gizonen eskubide eta aukera berdintasunaren alde mugimendu feministak duen garrantzia eta egiten duen ekarpena, mugimendu sozial bezala, ez da ia existitzen aztertutako albistegietan, beraren presentzia % 0,3 baino ez baita.

Albisteen % 2,6an soilik aurkitu dira emakumeen desberdintasun egoerari buruzko aipamenak, edo estereotipoak apurtu eta berdintasunaren aldeko joera erakusten duten albisteak y eta irudien %1,5ak soilik islatu eta transmititzen dute parekidetasuna.

Horrenbestez, esan dezakegu emakumeen diskriminazio eta desberdintasun egoera ez dela islatuta agertzen albistegien gaietan.

### **5. Emakumeen aurkako indarkeria. Trataera sentsazionalistarekiko jarrera, berezko indarkeria estruktural bezala tratatu beharrean.**

Emakumeen aurkako indarkeria arazo sozial larria da, emakumeek pairatutako mendetasun-egoerak eta diskriminazioak sortua. Hasieran, hedabideak lagungarriak izan ziren emakumeen aurkako indarkeriaren errealitatea azaleratzeko, nahiz eta erabilitako tratamendua nahiko eztabaidagarria zen kasu gehienetan. Gaur egun, pertsona adituak bat datoz esaterakoan egoera bestelakoa dela eta hedabideek modu erabakigarriagoan lagundu behar dutela, horrelako indarkeria ezabatzerazuzendutako didaktika soziala bultzatuz.

Hala eta guztiz ere, horrelako informazioei hedabideetan ematen zaien tratamenduak jarraitzen du distorsio-elementuak erakusten, eta horrek eragozten du indarkeria horren izaera estrukturala ikustea.

EITB taldetik aztertu diren albistegietan, emakumeen aurkako indarkeria jorratzen duten albisteen % 80 albistegien bloke nagusian sartzen dira, baina kasuen % 20an soilik agertzen dira titularretan, eta kasuen % 80an "Gizartea" izeneko blokean kokatzen dira.

Kasuen % 80an zehaztasun handiegiz eta modu luzean kontatzen da gertatutakoa, zeren zehetasun morbosoa eta dramatikoena gehitzen baitira bereziki.

Albisteen % 70ean, pertsona erasotzaileari buruzko datuak eskaintzen dira, eta albisteen % 20an biktimari buruzkoak.

Kasuen %60an, narrazioak gertatutakoa sinplifikatu edo neurri batean justifikatzera dramaten elementuak ditu, drogen erabilera aipatuz edo bestelako justifikazio ideologikoak (arrazak, klase soziala...).

Albisteen % 50ean eskaintzen den informazio motak gertakaria bera jorratzen du, eta beste % 50ean erantzun judiziala. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko albisteetan nabaria da informazio kualifikatuaren falta, errepikapen efektua saihesteko (berri ere, X.garren eraso...), zeren horrek efektu narkotizatzailea sortzen baitu izaera horretako ekintzen aurrean.

Berrien gai espezifikoen eraginez, albistegietan, batzuetan, hizpide dagoen arazoari buruzko iritzi kualifikatuei ematen zaie ahotsa (adibidez, ekologistei edo bestelako adituei desastre nuklear baten aurrean, ekonomistei krisi egoeraren ondorioen aurrean...). Datuek erakusten dutenez, baina, feminista adituen ahotsa ez da agertzen, nahiz eta mugimendu horren barnean iritzi kualifikatuak dauden eta iritzi horiek lagungarriak izan litezkeen emakumeen aurkako indarkeriari buruzko albisteak esplikatzen eta ondo kokatzeko, episodio errepikakor eta dramatiko bezala soilik aurkeztu beharrean.

Lehenengo konklusioetan aipatutako emaitzei lotuta, albiste horiek duten estaldura mailak emakumeen biktimizazio efektua du, zeren eta, gehienbat, eraso biktima bezala aurkezten baitituzte.

Horrenbestez, berdintasunera iristeko ezinbestekoa da emakumeen irudia alderdi guztietan normalizatzea, eta horretarako beharrezkoa da hedabideei ardura eskatzea, eta are gehiago EITB taldeari, beraren izaera publikoagatik.

Horretarako, beharrezkoak dira eta EITBren zuzendaritzari exigitu behar zaizkio berdintasunaren aldeko konpromiso tinkoak, besteak beste, eskuhartze plan integrala burutzea. Honen barruan, ente publikoa osatzen duten komunikabideetan emakume eta gizonen arteko berdintasunaren trataera informatiborako irizpideak zehaztu beharko dira. Honetaz gain, prestakuntza planak garatu beharko dira, arlo honetan langile taldea kualifikatu eta prestatuko dutenak.

Betetzen al du  
EITB komunikazio  
taldeak  
bere zeregin  
informatiboa  
zerbitzu publiko  
moduan

